


Gaur Egungo Euskal Literatura

Literatura Vasca de Hoy

Current Basque Literature





Gaur Egungo Euskal Literatura
Literatura Vasca de Hoy
Current Basque Literature

FRANKFURTeKo LIBURU AZOKA
FERIA del LIBRO de FRANKFURT
FRANKFURTER BOOK FAIR

2010

ARGITARATZAILEA Euskal Editoreen Elkartea
EDITADO POR Asociación de Editores del País Vasco
PUBLISHER **Basque Language Publishers' Association**

Zemoria, 25-behea (E-20013) DONOSTIA

☎ +34 943 29 23 49

Fax: +34 943 27 72 88

e -mail: editore@euskalnet.net

DISEINUA ETA MAKETAZIOA Concetta Probanza
DISEÑO Y MAQUETA
DESING AND LAYOUT

ILUSTRAZIOAK Luis Emaldi
ILUSTRACIONES
ILLUSTRATIONS

INPRIMATZAILEA Itxaropena, S.A.~Araba kalea, 45~Zarautz
IMPRESO EN
PRINTER

*Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzaren
laguntza jaso du.*

*Esta publicación ha recibido
subvención del Gobierno Vasco.*

**This publication has received the backing
of the Basque Government.**




AURKIBIDEA

ÍNDICE

INDEX

Patxi Zubizarreta	6
Alarguntsa gaztea	10
La viuda joven	12
A young widow's candidates	14
Irati Jimenez	16
Atsekabe zaitut	18
Mi pena tuya	20
Sorrow me not	22





PATXI ZUBIZARRETA

ORDIZIA, 1964

Gipuzkoako Goierriko herrixketan, seme-alaba ttikiek gurasoei umeen jatorriari buruzko galdera egiten zietenean, ohikoa izaten zen erantzutea Ordiziako azokatik ekartzen zituztela, saskitxo batean. Alabaina, Ordizian bertan jaiotako neska-mutikook erantzun hori sinetsiko ez genuelakoan, zikoina batek ekarri gintuela esaten ziguten. Eta ni, neure bizitza eta idatziei erreparaturik, uste osoa dut horrela dela. Gertatzen da, baina, ni ekarri ninduen zikoina Parisetik ez, baina Marrakexetik ekarri bide ninduela, izan ere hantxe baitago nire zenbait idazki eta irakurketaren abiapuntua (bitxia bada bitxi, euskarazko *azoka* hitza arabierazko *zoco* hitzean duela jatorria...). Sinetsia nago, halaber, besapean, ogiarekin batera, liburu batekin ekarri ninduela, harrezkero beti izan baitut liburua bidelagun. Eta agian horregatik guztiagatik bizi naiz Gasteizen, sarritan ikusten ditudalako hegazti hauek gure hiria

hegaldatzen. Hemen haurrentzako lanak idatzi ditut (*Usoa, Pantaleon badoa, Xia Tenzinen bidaia miresgarria...*), gazteentzat (*Eztia eta ozpina, Mundua lo dagoen bitartean...*), nagusientzat (*Jeans-ak hozkailuan, Txantra. Quick...*); itzuli ere egin dut, batez ere literatura arabiarreko nobelak (Antoine Galland, Nagib Mahfuz, Abdela Taia...); eta musikaren laguntzaz bestelako proiektu eta performance-ak bideratu ditut (*Hamar mezu eta dei bat, Mundua lo dagoen bitartean...*). Bien bitarte honetan hainbat sari jaso ditut, Euskadi Saria, Ala Delta, Baporea Saria, Gasteiz Hiria Itzulpen Saria, baina saririk handiena, inondik ere, irakurtzen eta idazten jarraitzeko pribilegioa da.

Patxi Zubizarreta

En las aldeas del Goierri guipuzcoano, cuando los hijos preguntaban a sus padres de dónde venían los niños, lo normal era contestar que los traían del mercado de Ordizia, en un cestillo. Sin embargo, intuyendo que esa respuesta no satisfacía a los niños del mismo Ordizia, a los que nacimos allí se nos decía que nos traía la cigüeña. Y yo, echando un vistazo a mi vida y a mis textos, estoy convencido de que es cierto. Pero la cigüeña que me trajo a mí, en lugar de venir de París, vino de Marrakesh, ya que tanto allí como en la zona del Atlas marroquí tienen origen varias de mis narraciones (resulta significativo que la palabra vasca *azoka* que designa al mercado, tiene su origen en la árabe *zoco*). Y estoy convencido de que, además de con un pan, la cigüeña me trajo con un libro bajo el brazo, pues siempre ha estado a mi lado y nunca me

ha abandonado. Y quizá por todo ello vivo hoy en Vitoria-Gasteiz, porque puedo contemplar a estas aves sobrevolando mi ciudad. Aquí he escrito obras para pequeños (*Usoa, Pantaleón se va, El maravilloso viaje de Xía Tenzin...*), para jóvenes (*De hiel y de miel, Mientras el mundo duerme...*) y para adultos (*Tejanos en el frigo, Broma.Quick...*); también he traducido, sobre todo novelas de escritores árabes (Naguib Mahfouz, Abdelá Taia...); y he experimentado con diferentes proyectos y performances (*Diez mensajes y una llamada, Mientras el mundo duerme...*). Durante estos años he ganado premios como el Euskadi, Barco de Vapor, Ala Delta, Premio de Traducción Vitoria-Gasteiz, pero el verdadero premio es tener el privilegio de poder seguir leyendo y escribiendo.

Patxi Zubizarreta

In the small villages in the Goierri area of Gipuzkoa when little children asked their parents where babies came from, they used to be told that they were brought in a little basket from the market in Ordizia. But as people suspected that we boys and girls who had been born in Ordizia would not believe this answer, we were told that a stork had brought us. And when I consider my life and my writings, I am totally convinced that it is true. But the stork which brought me did not come from Paris, but from Marrakesh, since several of my stories and readings have their starting point there (it is significant that the Basque word *azoka* (market) should be derived from the Arabic word *zoco*...). I am also convinced that I was brought with a book as well as a loaf of bread under my

arm, because since then I have always had a book beside me. And maybe it is for all these reasons that I live in Vitoria-Gasteiz, because I have often seen these birds flying over the city. It is here that I have written stories for children (*Usoa, Pantaleon badoa, Xia Tenzinen bidaia miresgarria...*), for teenagers (*Eztia eta ozpina, Mundua lo dagoen bitartean...*), for adults (*Jeans-ak hozkailuan, Txantxa.Quick...*); I have also done translations of novels by writers in Arabic (Antoine Galland, Nagib Mahfuz, Abdela Taia...); and with the accompaniment of music I have done other kinds of projects and performances (*Hamar mezu eta dei bat, Mundua lo dagoen bitartean...*). In the meantime, I have won prizes: the Euskadi Award, Ala Delta, the Baporea Award, the translation award of the city of Vitoria-Gasteiz; but there is no doubt

that the greatest award is the privilege of being able to go on reading and writing.

Patxi Zubizarreta



ALARGUNTSA GAZTEA

Urruneko erresuma batean, diru kopuru ederra zela medio, kalifa aguretu batek neskatila inuzent eta xalo batekin esposatzea lortu zuen. Urte gutxiren buruan, kalifa hil eta neskatila, ordurako emakume lirain, erresuma hartako buruzagia bilakatu zen.

Aberatsa eta xarmanta izaki, luze gabe printze, kalifa eta jauntxo asko joan zitzaizkion ezkontza eskabidea egitera. Baina emakumeak ez zuen aginte edo diru gehiago nahi, agurea ez bezalako gazte maitakor eta jostari bat baizik.

Hala bada, denen harridurarako deialdi zabala egin zuen halako egunetan, halako ordutan, berarekin esposatu nahi zuten guztiak –izan pobre, izan aberats– jauregira agertzeko.

–Ea, mintza zaitezte –esan zien banaka-banaka deialdiaren egunean–. Hitz egidazue zuen bizimoldeaz, zuen gustuez, zuen lanbideaz.

Hautagaiak mila eta bat gehiago izan ziren eta denek, luze ala labur, dotore ala baldar, emakumeak agindutakoa bete zuten. Baina hark

Patxi Zubizarreta


bost gazte bakarrik hautatu: suge enkantatzaile bat, dantzari bat, printze bat, artzain bat eta arotz bat. Eta haiei banan-banan bere geletara deitu zien.


Buruz buru geratzean, eskakizun bera egin zien bost hautagaiei, eta denak ala denak ere lotsatu eta kikildu ziren hitz hauek entzun zituztenean:

–Nire aurrean, ni lekuko nauzula, eta zuk gogokoen duzuen moldean, gizonek bakarka atsegin hartzen duzuen moduan aritzea nahi dut. –Eta neskak hautagaiak xaramelaturik zituenez, hark zer agindu, horixe beteko zutela hitz eman zuten.

Eta aurrena suge enkantatzailea hasi zen. Hura leuntasunik finenaz biluztu eta, txirulaz doinu ezin lizunago bat jo bitartean, bere gerripeko sugea sigi-saga altzarazi zuen. Eta eskuez ukitzen ez zuela, puska batean dantzarazi zuen piztia, harik eta, berez-berez, mizto xuria isuriz otzandu zitzaion arte.

Hurrena dantzariak ekin zion. Deabruak hartua bezala, lurrean pipirika ibili zen, eta jauzika, eta txiribuelbaka, eta bien bitartean erantziz joan zen.





Noizbait ere larru bizirik geratu zelarik, bere tresna iztar artean laztandu zuen, ahora ere eraman zuen –mundua mundu denetik gizaseme gehienei ukatu izan zaien plazerrik handienetakoa–, eta azkenik ahuspez eta arnasestuka amaitu zuen emakumearen oinetan, haziaren hondarra ahotik zeriola.

Hurrenago printzea saiatu zen. Jauregiko harem-ean nahi hainbat emakume izatera ohitua, hura kosta ahala kosta ahalegindu zen bere aginte makila altxatzen, baina bakarrean ezin.

Azkenaurrena artzaina izan zen. Honek enbor tantai bat atera zuen bere txilabapetik, emakumeak inondik ere izutzeko modukoa, eta ahuntzen errapeetatik bezala, bi eskuez tiraka jardun zuen, esne guztia uholdeka jeztea lortu zuen arte.

Eta azkena arotza heldu zen. Gazteak emakumea lorategietara eraman zuen, azala leuna zuen sahots bateraino. Orduan labana atera eta hiru sakonune egin zituen enborrean, bi bularren aldean eta bestea besabete bat beherago. Goikoetan pikuondo batetik hartutako bi ale ezarri zituen, eta

behekoan txurtena kendua eta erditik zulo zabal samar bat zuen sagar bat. Eta zuhaitza laztandu bitartean, pikuak eta sagarra milikatzen eta jaten hasi zen, astiro, presarik gabe, Adanek fruitu debekatua dastatu zuen lehen aldia baillizan. Eta denbora guztian begiak itxirik izan bazituen ere, sagarrean plazerrez urtu behar zuen unean, bera izan zen emakumeari begietara tinko so egin zion hautagai bakarra.

Desiozko begirakune hura jaso ostean, emakumeak ez zuen zalantzarik egin eta arotzari eskaini zizkion bere muinoak eta oihana, bere pikuak eta sagarra. Huraxe zen berak amestu izan zuen gazte maitakor eta jostaria, huraxe bere senarra.

LA VIUDA JOVEN

En un reino muy, muy lejano, un viejo califa, valiéndose de sus riquezas y de su poder, consiguió desposarse con una inocente y cándida muchacha. Al cabo de unos pocos años, el califa murió y la muchacha, convertida ya en una hermosa mujer, quedó al mando de aquel reino.

Sus riquezas y hermosura atrajeron a príncipes, califas y ricos comerciantes que le pidieron en matrimonio. Pero ella no quería ni necesitaba más dinero ni más poder, sino un hombre joven, cariñoso y juguetón que le hiciera olvidar los años vividos junto al viejo califa.

Así pues, y para sorpresa de todos, hizo un llamamiento público para que, aquellos que quisieran casarse con ella, fueran pobres o ricos, se presentaran en el palacio en un día y hora determinados.

–Vamos, contadme –los recibió uno por uno el día señalado–, habladme de vuestra vida, de vuestros gustos, de vuestro trabajo.

Hubo mil y un pretendientes, y todos –unos con brevedad, otros extensamente, unos con

aplomo, otros torpemente– cumplieron sus requerimientos. Pero ella sólo escogió a cinco jóvenes: un encantador de serpientes, un bailarín, un príncipe, un pastor y un carpintero. Y les fue llamando uno a uno a sus aposentos.

Una vez a solas con ella, les pidió lo mismo a cada uno de los cinco candidatos, y absolutamente todos se ruborizaron y se apocaron al oír estas palabras:

–Quiero que, en mi presencia, bajo mi mirada, te des placer de la forma en que os lo dais los hombres en solitario, y para ello elige el modo que te resulte más gozoso. –Y la hermosa mujer los tenía tan encandilados, que prometieron cumplir cualquiera de sus mandatos.

El primero en empezar fue el encantador de serpientes. Se desnudó muy delicadamente y, al son de una melodía lujuriosa que tocaba con su flauta, fue alzando la serpiente de su entrepierna. Y sin ni siquiera tocarla con sus manos, la hizo danzar durante un rato hasta que, tras derramar su ponzoña blanca, regresó achicada a su cubil.

El segundo fue el bailarín. Bailó poseído por el diablo, haciendo piruetas y dando volteretas mientras se iba desvistiendo. Cuando se quedó desnudo, acarició su miembro entre sus muslos, incluso se lo llevó a su propia boca —uno de los mayores placeres que se le ha sido negado al hombre desde que el mundo es mundo—, y finalmente terminó jadeante, a los pies de su dueña con los restos de su simiente aún en los labios.

El siguiente fue el príncipe. Habitado a tener a todas las mujeres del harem a su disposición, intentó por todos los medios alzar su bastón de mando, pero le fue imposible conseguirlo en solitario.

El penúltimo fue el pastor. Éste extrajo un enorme mástil de debajo de la chilaba, capaz de amedrentar a cualquier mujer, y se puso a ordeñarlo utilizando sus dos manos como lo haría con las ubres de sus cabras, hasta que derramó su poderoso torrente de leche.

El último en entrar fue el carpintero. El joven condujo a la mujer a los jardines, hasta un sauce de suave corteza. Allí sacó un cuchillo e hizo tres orificios en el tronco, dos a la altura del pecho y el otro un codo más abajo. En los de arriba, colocó

sendos higos cogidos de una higuera cercana; en el de abajo, una manzana vaciada por dentro. Y mientras acariciaba el árbol, empezó a mordisquear y saborear los higos y la manzana, despacio, sin prisa, como lo habría hecho Adán la primera vez que probó la fruta prohibida. Y aunque entretanto mantuvo sus ojos cerrados, en el momento de deshacerse en el placer de la manzana, fue el único que miró directamente a los ojos de la mujer.

Después de recibir aquella mirada de deseo, la mujer no lo dudó y ofreció al carpintero sus colinas y su bosque, sus higos y su manzana. Él era el joven cariñoso y juguetón con el que tanto había soñado. Con él se desposaría.



A YOUNG WIDOW'S CANDIDATES

In a remote kingdom an elderly caliph succeeded in marrying an innocent, naïve young girl with the help of a considerable fortune. The caliph died a few years later and the young girl, who by that time had turned into a beautiful woman, became the ruler of the kingdom.

As she was rich and charming many princes, caliphs and notables lost no time going to her to ask for her hand in marriage. But the woman wanted neither power nor more money, but a loving, playful young man who was the exact opposite of the old man.

So to everyone's surprise she made a general proclamation on an arranged day and time that all those who wished to marry her, be they rich or poor, should come to her palace.

To each one on the appointed day she said:

–Tell me about your way of life, what you like and what you do for a living.

The candidates, numbering a thousand and one, each obeyed the woman's orders, some

interminably, others briefly, some gracefully others clumsily. But she chose only five of the young men: a snake charmer, a dancer, a prince, a shepherd and a carpenter. And she called each one to her room one by one.

When she came face to face with each of the five candidates, she made an identical request to each one, who became embarrassed and unnerved on hearing the following:

–In my presence, with me as your only witness, and in whatever way you prefer, I want you to act in the way you men do whenever you want to indulge in solitary pleasure. –And because they were captivated by the girl, they promised to do exactly what she had ordered them to do.

And the first to begin was the snake charmer. With the utmost grace he removed his clothes, and as he played a tune that could not have been more sensual he made the snake below his waist zigzag upwards. He did not touch it with his hands, but made the beast dance briefly, until the white forked tongue flowed and became tamed.

Then it was the dancer's turn. As if possessed by the devil, he rolled over and over on the floor and gradually removed his clothes as he jumped and pirouetted. When he was naked, he caressed the tool between his thighs and put it in his mouth—one of the greatest pleasures that men have been denied since time immemorial—and in the end fell at the woman's feet prostrating and gasping for breath, as the remains of his seed dribbled out of his mouth.

It was the Prince's turn next. Used to having as many women as he wanted in the harem of his palace, he put all his energies into trying to raise his mace, but did not manage to do so alone.

The last but one was the shepherd. He fished an enormous trunk out from under his djellabah, of the type that would undoubtedly frighten a woman, and, he milked it with both his hands as if it were a goat's udder, until he had succeeded in making all the milk gush out.

And the last to arrive was the carpenter. The young man led the woman into the gardens until

they reached a willow with a smooth bark. He then produced a knife and cut three hollows in its trunk, two at chest height and a third a cubit further down. He placed two figs from a fig tree in the top ones and in the lower one an apple without its stalk and with a fairly wide hole cut into it. And as he caressed the tree he began to lick and eat the figs and apple, slowly, sweetly, without haste, as if he were Adam tasting the forbidden fruit for the very first time. And even though his eyes remained closed the whole time, he was the only candidate who looked firmly into the woman's eyes at the moment when he was about to melt with pleasure inside the apple.

After receiving that look full of desire the woman did not hesitate to offer the carpenter her hills and her wood, her figs and her apple. He was the very loving, playful young man she had dreamt of; he was her husband.



IRATI JIMENEZ

MUNDAKA, 1977

Lehen ipuina idatzi nuenean sei urte nituen. Drama latza zen: neskatoxo gazteak txoria zuen, lehoiak txoria jan zion, neskatoak negar egin zuen. Luzaroan antzeko literatur lan serioetan saiatu nintzen, oso ume serioa nintzelako. Denborarekin, ostera, literatura jolasa zela ulertu nuen eta jolasean ari naiz orain, formaltasunik gabe, olgetan. *Bat, bi, Manchester* izeneko nobela laburra idatzi dut eta *Nora ez dakizun hori* izeneko luzeagoa. Haurrentzako Malcolm Xen autobiografia ere argitaratu dut eta berriki *Atsekabe zaitut* izeneko ipuin ilustratua. Denen artean terapia asko aurreztu didate. Zoriontsu egiten nau idazteak eta zorioneko naiz horregatik.

Tenía seis años cuando escribí mi primer cuento. Se trataba de una historia muy triste: una jovencita tenía un pájaro, el león se lo comió, la niña lloró. Durante mucho tiempo me esforcé en realizar trabajos literarios serios del mismo corte, ya que era una niña muy seria. Al cabo del tiempo, sin embargo, comprendí que la literatura es un juego, y ahora estoy jugando, sin formalidad, divirtiéndome. He escrito una novela corta llamada *Bat, bi, Manchester*, y otra más larga, cuyo título es *Nora ez dakizun hori*. Igualmente, he publicado para los niños la autobiografía de Malcolm X, y recientemente un cuento ilustrado, de título *Atsekabe zaitut*. Todos estos trabajos me han ahorrado muchas terapias. El escribir me hace feliz y soy afortunada por ello.

Iratxi Jimenez

I wrote my first story when I was six. It was a tragic drama: a little girl had a bird, a lion ate the bird and the little girl cried. For a long time I tried to produce similar serious literary works, because I was a very serious child. But as time passed, I understood that literature was a game and now I am playing without taking it too seriously, and I am having fun. I have written the short novel *Bat, bi, Manchester* and the longer one entitled *Nora ez dakizun hori*. I have also had Malcolm X's autobiography for children published, and recently the illustrated story *Atsekabe zaitut*. Between them they have saved me a lot of therapy. Writing makes me happy and that is why I am happy.

Jendea ez da konturatzen. *Eguraldiak jartzen nau umore txarrez. Hormona madarikatu hauek. Ez, ez da ezer, zerbaitekin akordatu naiz.* Lainoa sentitzen dute, pisua eztarrian, larritasun halako bat, ia nabaritzen ez dena, itzala. Egonezinaren haizeteak oskolean dituzten arrakalak aurkitzen ditu, eta hantxe egiten du ebakia, paperaren ertzak bezala, zorrotzegi, konturatu gabe. Athleticcek galdu duela, egun txarra daukatela. Ez dira konturatzen.

Atsekabea armada da. Baina ez dute ikusten. Eta katuak diruditen bere soldaduak ditu. Baina ez dakite.

Goizaldeko seietan, zazpitan, batek dakietan, Hamar etxean utzi eta Emek tinbrea jo du, ahal duen moduan, behin, birritan, hiru aldiz, ohean hartu ohi duen Katu Kaleko azken andrearen etxean.

–Mozkor zaude?

Ez dio galdetu ez “nor da”, ez beste ezer. Goizaldeko orduetan nor izango da ba.

–Ez. Mozkor ez.


Gezurra da eta momentu horretan ez du inporta.

Ez du inporta eskaileretan gora estropezu egiten duenean. Ez du inporta atera heltzen denean. Atea zabalik aurkitzen duenean. Ez du inporta Katu Kaleko bere Andereñoak kamiseta zaharra belaunetik behera duelako, galtzerdiak jantzita dituelako, orraztu gabe dagoelako, logura begiak dituelako, munduko ederrena delako eta gaur ezingo diolako mezu batekin ezetz esan. Ez du inporta inork jo ez duen bezala joko dutelako oraintxe, hortxe, *ya*.

Gezurra. Baina ez du inporta.

Katu Kaleko Andereñoak gorbataitik heltzen dio, eskuarekin, eta ezpainenatik, mingainarekin. Emeren ahoan alkoholaren pisua sentitzen duenean “gezurti” esaten dio belarrira, baina eskuarekin titiak bilatzen dizkio une berean eta ez du inporta.

Beraiek biak.



Beraiek biak, berotasuna eta ez du inporta, beste ezerk, une batez.

Atsekabe zaitut. Emek halaxe deitu zion Katuek munduari egiten zioten mesedeaz idatzi zuen tesiari. Oraindik hortxe dauka, etxeko apalategiren batean. Enkoadernatu egin zuen eta, bere izenez sinatu beharrean, ezizena hartzeko erabili zuen. Urre zurizko eme letra agertzen da liburuaren azalean. Ikasle askoren eskuliburua dela esan zion aspaldi elkarrizketa egitera etorri zitzaion Izerdi Tanta neskatoak. Atsekabearen apologia. “Ez dago argi hutsezko poemarik, miseriarik gabeko poetarik”, idatzi zuen, “atsekabeak behar gaitu eta atsekabeak egiten gaitu”. Beste norbait zen orduan. Liburuak, iraultzak, samina. Horretan guztian sinesten zuen.

Eta orain? Orain, orduan idatzi ez zuenak jaten dizkio barrenak: miseriak badu bere lekua munduan edo bere antzeko miserableei esker existitzen da?

La gente no se entera. *El tiempo me pone de mal humor. Estas malditas hormonas! No, no es nada, me he acordado de una cosa.*

Sienten la niebla, un peso en la garganta, una cierta angustia, casi imperceptible, una sombra. El vendaval de la impaciencia encuentra las grietas que tienen en el caparazón, y allí realiza el corte, al igual que los bordes del papel, demasiado afilado, sin que se den cuenta. Que el Athletic ha perdido, que han tenido mal día. No se enteran.

La aflicción es un ejército. Pero no lo ven. Y tiene soldados que parecen gatos. Pero no lo saben.

A las seis de la mañana, a las siete, a las quién sabe cuándo, ha dejado a Hamar en casa y Eme ha tocado el timbre, como ha podido, una vez, dos, tres veces, en la casa de la última mujer de la Calle del Gato que lo acoge en su lecho.

—Estás borracho?

No le ha preguntado ni “quién es”, ni ninguna otra cosa. Quién va a ser a esas horas de la mañana?

—No. Borracho no.

Es mentira y no tiene importancia en ese momento.

No tiene importancia cuando tropieza subiendo las escaleras. No tiene importancia cuando llega a la puerta. Cuando la encuentra abierta. No tiene importancia porque su Señorita de la Calle del Gato tiene la vieja camiseta por debajo de las rodillas, porque tiene puestos los calcetines, porque está sin peinar, porque tiene ojos de sueño, porque es la más hermosa del mundo y porque hoy no le podrá decir que no por medio de un mensaje. No tiene importancia porque lo harán como nadie lo ha hecho, ahora mismo, ahí, ya.

Mentira. Pero no importa.

La Señorita de la Calle del Gato lo agarra de la corbata, con la mano, y de los labios, con la lengua. Cuando siente el peso del alcohol en la boca de Eme, le susurra “mentiroso” en la oreja, pero le busca los pechos con la mano al mismo tiempo y no tiene importancia.

Ellos, los dos.

Ellos, los dos, el calor y ninguna otra cosa
tiene importancia, por un momento.

Te aflijo. Así denominó Eme la tesis que escribió sobre el beneficio que hacen los Gatos al mundo. Todavía lo tiene ahí, en alguna estantería de su casa. Lo encuadernó y en lugar de firmarlo con su nombre, lo utilizó para tomar su apodo. En la portada del libro aparece una letra de mujer, de oro blanco. Es el manual de muchos estudiantes, según le dijo Gota de Sudor, una niña que hace tiempo acudió a él para realizar una entrevista. Apología de la aflicción. “No existen poemas de luz totalmente pura, ni poetas sin miserias”, escribió, “la aflicción nos necesita y la aflicción nos hace”. Entonces era otro. Libros, revoluciones, dolor. Creía en todo ello.

¿Y ahora? Ahora, lo no escrito entonces le carcome las entrañas: ¿la miseria tiene su lugar en el mundo o existe gracias a miserables como él?

Irati Jimenez

[Trad.: Bakun S.L.]

People don't realise. *The weather puts me in a bad mood. Those bloody hormones. No, it's nothing, I've just remembered something.*

They feel the fog, a weight in their throats, a kind of anxiety that is barely perceptible, a shadow. The restless wind seeks out the cracks in their shells, and there it makes a slit, too sharp like the edges of paper, and without realising it. That the Bilbao Athletic football team has lost, that they have a bad day. They don't realise it.

Distress is the army. But they don't see it. And it has its soldiers that resemble cats. But they don't know that.

At six, seven, goodness knows what time in the morning, Eme leaves Hamar at home and rings the bell as best he can, once, twice, three times at the house of the last woman in Cat Street who welcomes him into her bed.

—You pissed?

She didn't ask "Who's that?", or anything else. Who else is it going to be in the early hours, then?

Irati Jimenez

—No, I'm not. Not pissed.


It's a lie and at that moment it doesn't matter.

It doesn't matter if he trips up the stairs. It doesn't matter when he reaches the door. When he finds the door open. It doesn't matter, because his woman in Cat Street is wearing an old vest reaching down below her knees, because she's in her socks, because she hasn't combed her hair, because she has sleep in her eyes, because she's the most beautiful one in the world, and because today she won't be able to say no with a message. It doesn't matter, because they're going to fuck like anyone else right now, right here, *right away*.

A lie. But it doesn't matter.

The Cat Street woman clutches him by his tie, and his lips with her tongue. When she feels the weight of the alcohol in Eme's mouth she says "liar" in his ear, but as he feels for her tits at the same time it doesn't matter.

The two of them.



The two of them, warmth and nothing else matters
for a moment.

You distress me. That is what Eme called the thesis
he wrote about the favour done to the world by
cats. He's kept it right there on a shelf in the house.
He had it bound and instead of signing with his
own name, used it to adopt a nickname. The letter
“M” in white gold appears on the front cover. It
was the text book for many students. The apologia
of distress. “There are no poems of pure light, or
poets without misery,” he wrote, “distress needs us
and distress makes us.” He was someone else at that
time. Books, revolutions, pain. He used to believe in
all that.

And what about now? Now, what he did not write
then is eating him up inside: Does misery have its
place in the world or does it exist thanks to miserable
people like him?

Irati Jimenez

[Trad.: Bakun S.L.]

